



Usurbilgo Udala

## 2021EKO URRIAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta  
Lur Etxeberria Gurrutxaga  
Joxe Mari Iribar Zapirain  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Luken Arkarazo Silva  
Oskar Santamaria Pikabea  
Itziar Basterrika Unanue  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Pérez Fraisoli

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontuhartzailea:** Xabier Olano Jauregi

**Ez dira bertaratu:** Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2021eko urriaren 28an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

### **1.- 2021/06/24KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek 2021/06/24ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO IRAILAREN 27TIK URRIAREN 22RA (2021/828-2021/919).**



Usurbilgo Udala

Alkatetzak 2021eko irailaren 27tik urriaren 22ra bitartean (2021/828-2021/919) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- 2021EKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.**

Xabier Olano kontuhartzaileak aipatu du beti bezala hiruhilabetea amaitzen denean Foru Aldundiari aurrekontuaren exekuzioaren berri eman behar izaten zaiola. Oraingoan, berri emate hori urriaren 18an egin zutela zehaztu du eta behin hori eginda plenoari ere informazio berbera ematen zaiola esan du.

Aurrekontua nahiko txukun exekutatzen ari dela esan du, iazkoa baino hobeto. Eskuarlean duten informazioan ikusten duten bezala, sarrerak batzaz beste %67an daudela esan du eta gastuak, berriz, batzaz beste %50 inguruan.

Jarraitu du esanez exekuzioa horrela baldin badoa iazkoa baino egokiagoa izango dela, sarrerak %90 inguruan ibili litezkeela uste du eta gastuak ez direla horrenbestera iritsiko, baina gastu arruntak baietz dio, inbertsioak pixkabat atzerago.

Ondo joate hori berresten duela dio orain gutxi jakin duten datuak, Udal Finantziario Foru Fondoak aurreikusitakoa baino dezente gehiago aurre-likidazio gisa aurreikusten duela, 450.000 euro inguru gehiago eta hori oso albiste ona dela esan dute.

Kontuhartzaileak zorpetze egoeraren inguruan adierazi du urte amaieran %12,88 inguruan ibiliko dela. Poliki-poliki jeisten doazela dio, bide onean.

Batzarkideei 2021eko Aurrekontuaren exekuzioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

### **4.- USURBILGO BAKE EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA HAUTATZEKO DEIALDIA (2021-2025).**

Alkateak adierazi du gai hau aurreko Antolakuntza batzordean aipatu zutela. Orain 2021-2025 aldirako Usurbilgo bake epaile titularra eta honen ordezkoa hautatzeko prozedurari hasiera eman behar zaiola esan du. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta interesa dutenek eta baldintzak betetzen dituztenek izena emateko hilabeteko epea izango dutela zehaztu du.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena kontuan hartuta, aho batez onartu dute:

“2021-2025erako Bake Epaile titular berria eta honen ordezkoa izendatzeko dagokion jardunbideari hasiera eman behar zaio, Botere Judizialeko Lege Organikoko 101. artikulua



Usurbilgo Udala

eta hurrengoek, eta ekainaren 7ko 3/1995 Bake-Epaileei buruzko Araudiak xedatutakoa kontuan hartuz.

Udalbatza Plenoak, gehiengo absolutuz, aipaturiko karguak hautatzeko eskuduntza dauka, eskaerak aurkezteko epea finkatu eta iragan ondoren. Epea finkatu eta gero, iragarkiak Udaletxeko Iragarki Taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Epaitegi Dekanoan argitaratu behar dira.

Hautagaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Espainiar Estatuko nazionalitatea izatea.
- Adinez nagusia izatea.
- Botere Judizialeko Lege Organikoko 102., 302., 303. eta 389. artikuluek Kargu judizialerako aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kausak ez edukitzea.

Halaber, honako merituak ere baloratu ahal izango dira: bizilekua, curriculum eta euskararen ezagutza.

Beraz, 2021ko urriaren 19ko Antolakuntza Batzordeak aho batez (aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga eta Patxi Suárez) onartutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu aho batez:

## ERABAKIAK

**LEHENA:** Hilabete bateko epea finkatzea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, Usurbilgo Bake Epaille titularra eta honen ordezkoa izateko interesa dutenek eskaerak aurkez ditzaten. Eskaerak udaletxe honetako erregistroan edota Administrazioako Jardunbidea arautzen duen Legediak xedaturiko eran aurkeztu beharko dira.

**BIGARRENA:** Espedientea erakusketa publikoan jartzea aipaturiko epean, interesatuek azter dezaten.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hauek iragartzea Udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Usurbilgo Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Donostiako Epaitegi Dekanoan.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

## **5.- ERTZAINZA ETA UDALTZAINGOA ELKARLANEAN ARITZEKO EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.**

Alkateak adierazi du honen inguruan ere Antolakuntza batzordean jardun zutela. Nagusiki orain arte zuten hitzarmenari jarraipena ematea dela dio, 2019an sinatu zenak bi urteko indarraldia baitzuen.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena kontuan hartuta, aho batez onartu dute:

“Esp. zk.: ID.21/2021-0149

### **Ikusirik**

2019ko urriaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Udalaren arteko Lankidetzaren Hitzarmen Markoa sinatu zen, Ertzaintza eta Udaltzaingoa elkarlanean aritzeko. Lankidetzaren hitzarmen honen indarraldia amaitu da.

Elkarlanari jarraipena emateko, lankidetzaren hitzarmen berria sinatzea prososatu du Segurtasuna sailak.

Euskal polizia-eredua Euskadiko Poliziak osatzen du, eta hori Ertzaintzak -Eusko Jaurlaritzaren menpe- eta Euskadiko udalerrietako udaltzaingoei -Euskadiko udalerrien menpe- osatzen dute.

Talde bakoitzari esleitu zaizkion funtzioei dagokienez, ereduaren koherentzia sustatzeko, beharrezkoa da polizia-kidegoak elkarren osagarri izateko formulak bilatzea, elkarrekiko harremana eta lankidetzaren erraztuko duten mekanismoak ezarriz.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 42. artikulua eta ondorengo araberak, betebeharrak hauek dituzte bi polizia-kidego horiek: elkarri laguntza eta informazioa ematea; biek erabiltzeko komunikazio-sare bat sortu eta mantentzea eta komunikazio-zentralen interkonexioa erraztea; Udaltzaingoa Euskadiko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroan integratzeko neurriak hartzea; polizia-instalazioen erabilera partekatuari eta zerbitzu komunak sortzeari bidea ematea; eta dokumentu, inprimaki eta formulario komunak erabilera sustatzea.

### **Kontuan harturik**

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 42. artikulua eta ondorengo araberak, betebeharrak hauek dituzte bi polizia-kidego horiek: elkarri laguntza eta informazioa ematea; biek erabiltzeko komunikazio-sare bat sortu eta mantentzea eta komunikazio-zentralen interkonexioa erraztea; Udaltzaingoa Euskadiko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroan integratzeko neurriak hartzea; polizia-instalazioen



Usurbilgo Udala

erabilera partekatuari eta zerbitzu komunak sortzeari bidea ematea; eta dokumentu, inprimaki eta formulario komunak erabilera sustatzea.

Beraz, 2021ko urriaren 19ko Antolakuntza Batzordeak aho batez (aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga eta Patxi Suárez) onartutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu aho batez:

## **ERABAKIAK**

**LEHENENGOA:** Ertzaintza eta Udaltzaingoa elkarlanean aritzeko EAEko Administrazio Orokorraren (Segurtasun sailaren bitartez) eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea eta sinatzea.

**BIGARRENA:** Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari jakinaraztea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdepilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraiso.

Beraz, aho batez onartu dute.

## **6.- 2022. URTERAKO USURBILGO HERRI BARRUKO TAXIEN TARIFA BERRIAK ONARTZEA.**

Lur Etxeberriak azalpenak eman ditu.

Buruntzaldeako taxi eskualdeko batzordea irailaren 24ean bildu zela eta bertan Agitax-ek eta G.Taxik, Gipuzkoako taxisten bi ordezkariak, proposatu zutela dio tarifak %2,9 igotzea. Proposamena udal guztiek aho batez onartu zutela gaineratu du.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Mantenua batzordearen irizpena kontuan hartuta, aho batez onartu dute:

“Esp. zk.: HZ.06/2021-0344

## **Aurrekariak**

2002 urtean, Eusko Jaurlaritzak, Taxiaren legea, "bidaiariak herri barruan" eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000ko legea, onartu zuen. Lege hau hartuta "BURUNTZALDEA ERREGIMEN BEREZIKO GUNEA" sortu zen, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil udalerriekin, (*Lurralde Antolaketa eta*



Usurbilgo Udala

*Sustapenerako departamentuko diputatuak agindutako, 2007ko maiatzaren 29ko Foru aginduan eta 2007ko ekainaren 11ko G.A.O. 114 zenbakian argitaratua).*

2/2000 legea garatzen duen erregelamenduko 57. artikulua eta hurrengoak diotenez, kotxe bidez garraio zerbitzua ematea, tarifa bati lotuta egongo da eta eskumena duen organoak aldiro errebisatu eta onartu beharko du. Tarifa hori, loteslea eta derrigorrezkoa izango da, bai hiriko bai hiriarteko ibilbideetan.

Era berean, garraiorako tarifak arlo guztiekin batera onartuko direla adostu da. Tarifetan ekoizpen eta antolaketaren egoera normal bateko, benetako kostu guztiak, sartu beharko dira: batetik amortizazio egoki bat egiteko eta enpresarentzako arrazoizko mozkinak emateko eta bestetik, zerbitzua edo jarduera egokia emateko. Horregatik udalerrri horietan, tarifaren berrikuspena egin beharko da, era bereko tarifa mantentzeko.

Bestalde, tarifak urtero berrikusten dira, horretarako kostuen egituraren osagaietan izandako gorabeherak kontuan hartuz, hau da, jardunaren oreka ekonomikoan eragin izan duten gorabeherak.

### Ikusirik

2019ko abenduaren 23an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Euskadiko Prezioen Batzordearen erabakia. Bertan, 2020. urterako USURBILGO udalak aurkeztu zituen Auto Taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoaren salneurriak onartu ziren. Hauek izan ziren 2020 urterako onarturiko eta oraindik indarrean dauden tarifak:

2020ko HIRI BARRUKO TARIFA					
Tarifa 1 *			Tarifa 2 **		
Gutxieneko tarifa ***	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
5,3642	1,1404	21,8840	6,3938	1,8268	34,3927

\* *Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.*

\*\* *Tarifa hau larunbatetan, igandeetan eta Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian jaiegundiren egunetan aplikatuko da, bai eta abenduaren 24an eta 31n ere. Era berean, lanegunetan 22:00etatik 07:00etara ere aplikatuko da.*

\*\*\* *Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.*

Taxilarien erosteko ahalmena mantentzearen alde eta udalerriak taxi tarifa jakinak urte naturalaren hasieran jar ditzan, **2022. urterako USURBILGO TAXI TARIFA BERRIEN ONARTZE ESKAERA aurkeztu dute Gipuzkoako taxilarien bi elkarteek.**

Buruntzaldeko Taxiaren Eskualdeko Batzordeak, 2021eko irailaren 24an egindako bileran, 2022. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak onartu zituen, indarrean dauden tarifei % 2,9 erantsiz. Igoera horren ondorioz, 2022. urteko tarifak hauek izatea proposatzen du:

2022 URTERAKO HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
Tarifa 1 *			Tarifa 2 **		
Gutxieneko	Egindako km	Itxaronaldia,	Gutxieneko	Egindako km	Itxaronaldia,



Usurbilgo Udala

tarifa		orduko	tarifa		orduko
5,5197	1,1735	22,5187	6,5792	1,8797	35,3901

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

\* Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.

\*\* Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

### Kontuan harturik

Herriko eta herriz kanpoko Garraio Publikoari buruz ekainaren 29ko 2/2000 Eusko Legebiltzarreko Legearen 3.3. eta 17.6 artikuluek diotenez, Udalari dagokio tarifak onartzea.

Gauzak horrela, Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak, 2021eko urriaren 20an egindako bilkuran, Lur Etxeberria, Jose Mari Iribar, Carlos Perez eta Patxi Suarezen ALDEKO botoekin, onartutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu aho batez:

### ERABAKIAK

**LEHENENGO:** Usurbilgo herri barruko garraiorako 2022. urterako proposatzen diren aipatutako auto-taxi tarifak ONARTZEA.

**BIGARREN:** Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari onespeneraren erabakia bidaltzea behin betiko onespenera eman dezan.

**HIRUGARREN:** Erabaki honen ziurtagiria herriko taxi titularrei, G.TAXI Gipuzkoako Taxien Elkargoari, AGITAXi, Foru Aldundiko Garraio Departamentuari eta Gasteizko Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailekoko arduradunari bidaltzea 2021eko azaroaren 16a baino lehen."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, aho batez onartu dute.

### 7.- MOZIOA: "AÑARBEO BEHE KANALAREN ALTERNATIBA"KO LANAK BURUTZEKO ESKAERA TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOARI.

Alkateak adierazi du Añarbak berak udal guztietara bideratu duen mozioa dela.



Usurbilgo Udala

Lur Etxeberriak mozioa irakurri du.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Mantenua batzordearen irizpena kontuan hartuta, aho batez onartu dute:

“Esp.zk.: HZ.06/2021-0359

Udal gobernu taldeak, Añarbeko “Beheko Kanalaren Alternatibaren” obren egoerari buruzko honako irizpena aurkeztu dio Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeari 2021eko urriaren 20an egingo den bilkuran eztabaidatzeko.

## **JUSTIFIKAZIOA**

“Beheko Kanalaren Alternatiba” izeneko azpiegitura ezinbestekoa da Mankomunitateko hamar udalerrietako 300.000 biztanleri baino gehiagori hornidura ziurtatzeko, Usurbil udalerrikoak barne.

24 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa da, eta 2010ean "Estatuaren Interes Orokor" izendatu zuten. Ondorioz, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak finantzatu eta gauzatu behar du, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bidez.

Azken urteotan obrak hasi ahal izateko erakunde ezberdinek hainbat gestio egin dituzten arren, lanak oraindik lizitatu gabe daude, eta, ondorioz, egungo Behe Kanalak -Añarbeko urtegitik Petritegiko edateko uren tratamendu estaziora ura etengabe garraiatzen duenak- ondorio larriren bat izateko arriskua du.

Gaur egungo hodiaren antzintasunak -Beheko Kanala 1960an eraiki zen- eta ura garraiatzeko bigarren kanalik ez dagoen bitartean hura konpontzeko ezintasunak are premiazkoagoa egiten dute azpiegitura alternatibo hori eraikitzea.

300.000 gipuzkoar baino gehiagorentzako ur-hornidura arriskuan egongo litzateke egungo Beheko Kanalak ezbeharren bat izango balu 11,9 kilometro luzeko punturen batean.

Azaldutakoa ikusirik, Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak, 2021eko urriaren 20an egindako bilkuran, Lur Etxeberria, Jose Mari Iribar, Carlos Perez eta Patxi Suarezen ALDEKO botoekin, onartutako irizpena kontuan hartuta, Udaltzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

1. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari eskatzen dio lehenbailehen egin ditzala “Añarbeko Behe Kanalaren Alternatiba”-ko lanak, bai 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan sartuta, bai eskura duen beste edozein finantzaketa-sistema bidez.”





Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, aho batez onartu dute.

#### **8.- GALDERA ETA ESKAERAK.**

Ez dago galdera edo eskaerarik.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:17tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**